



Dorre Plazako esne makinak bi urte bete ditu

Duela bi urtez geroztik eros daiteke Leaburuko Mahala baserriko behien esnea Dorre Plazako esne makinan. Hilean 1.700 litro kontsumitzen dituzte lasarteoriatarrak. Hasieran esne gaingabeta eskaintzen bazuten ere, gaur egun esne oso soilik eros daiteke bertan, nahi izanez gero baso bat esne ere bai 10 xentimoren truke. / 5. orrialdea



Gogoz abestu zituzten herritarrek egun honetan horren ohikoak diren kantuak, ohitura zaharrari eutsiz eta eztarriz sano daudela frogatuz.

Santa Agedari oles eginez

Euskal Herriko eguna da Santa Ageda eguna, otsailaren 5a. Bezperan, ohitura zaharrei jarraituz, lasarteoriatarrak ere kalera

atera ziren kalez kale santa eskean aritzeko asmoz. Aurtengoan baina, eguraldi desatsegina izan dute lagun, batez ere, hotza eta euria izan dira

protagonista. Horrek ordea ez ditu herritarrak kikildu. Ohiko makila kolpe eta kantuez gain, trikitalariak, bertsolariak eta garai bateko adarraren hotsa

entzuteko aukera ere izan zen larunbat arratsaldean. Herritarren eztarriek sano dirauten bitartean, ohitura zaharrik ez da galduko Lasarte-Orian. •

Sahararako jaki bilketa Urbilen

Sahararen Aldeko Lagunak Elkarteak larunbatean jarri zuen jakiak biltzeko postua Urbil merkatal gunearan aurrean. Arduradunek aipatu zuten, aurreko urteetan baino jende gutxiagok jarri du bere aletxo. Aurreko urtean Lasarte-Orian bi tona jaki bildu ziren eta aurtengoan, zifra horretatik gertu ibiliko dira. Orain arte, herriko ikastetxeetan, supermerkatuetan eta Emakumearen Zentro Zibikoan izan da jakiak uzteko aukera. Orain, guztia batu eta Saharara eramango dute kamioi bidez, errefuxiatu guneetan banatu dezaten. •



Sahararen Aldeko Lagunak Elkarteko kideek Urbil merkatal gunearan atarian informazio-gune bat jarri zuten, bilketan laguntzeko.

ELKARRIZKETA /2

Antonio Pedraza arbitro ohiarekin solasean

ALBISTEA /3

Atsobakarreko langileak eta CLECE adostasun batera iritsi dira azkenean

KIROLA /6

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak bikain Gipuzkoako Federazioko sarian

ALBA

BEHERAPENAK !
ARROPA DENDA



etorri eta probatu !



Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450



Antonio Pedraza Arbitro eta Semblante Andaluz elkarteko lehendakari ohia

Futbolari lotutako bizitza

■ 19 urteko ibilbidea egin du erregionaleko futbol partiduak arbitratzen ■ Andaluziarra jaiotzez, herritar askok ezagutzen dute, urtetan, Semblante Andaluz elkarteko lehendakaria izan delako

1968an iritsi zen Antonio Pedraza Kordobako Palma del Rio-tik Usurbilera. Saltzailea izan da ofizioz, eta arbitro afizioz: hemeretzi urtez izan zen erregional mailako futbol epailea eta herriko Semblante Andaluz elkarteko presidente ere izan da. Oraindik gogoz jarraitzen du hainbeste maite duen futbola. Bere bizitzako esperientzia eta anekdota ugari kontatu dizkigu.

Ixtaso MORENO

Arbitro izango zela "kasualitatez" erabaki zuen Atotxara Erreala ikustera joan zen egun batean eta 19 urtean ibili zen herriz herri erregional mailako partidak arbitratzen. Errepidean kilometro mordo egin ostean, familiarekin denbora gehiago pasatzeko utzi zuen arbitrajea.

Zenbat urterekin murgildu zinen futbolaren munduan?

19 urterekin hasi nintzen. 1968. urtean etorri nintzen Usurbilera bizitzera Andaluziatik, Palma del Rio-n jaio nintzen, Kordoban. .

Ni beti futbolean ibilia nintzen eta harrigarria egin zitzaidan Usurbilen futbol talderik ez egotea. Egun batean, Udaletxera joan eta Irasuegi alkatearekin hitz egin nuen. Berak proposatu zidan herriko gazteekin hitz egin eta talde bat osatzeko, eta Usurbil Kirol Taldearen barruan sartuko zutela agindu zidan.

Arbitro izan aurretik futbol jokalaria izan zinen?

Bai, gaztetxo taldea sortu eta Andoaingo La Salle lehiaketa eta Zarauzko hondartzako txapelketan jokatzeko genuen. Reala ikustera joaten ginen denak elkarrekin Atotxara eta bertan, garai hartan arbitro gazteek futbol araudiak ikuslearen banatzen zituzten. Horietako batean ikusi nuen "gurera batu zaitetz" edo halako lelo bat. Arbitro izateko Donostiako Urbietako kaleko egoitzatik pasatzeko gonbitea egiten zuten. Zergatik ez? Pentsatu nuen eta horrela erabaki nuen arbitro izatea.

Eta noiz erabaki zenuen profesional izatea?

1969an hasi eta ezkondu arte 19 urtez jardun nintzen arbitro. Ibilbidea berez denentzako antzekoa zen. Kontxan hasten ginen, nire kasuan bi urte egin nituen Kontxako partidak arbitratzen. Gero,

beterano batekin joaten ginen zenbait partidutara marrazain lanak egitera eta ondoren, zu zeu arbitratzen hasten zinen.

Astelehenetan arbitro eskolak izaten genituen, hirugarren mailako bi arbitroekin eta ostiraletan hauekin batera bigarren mailako arbitro batekin. Guruzeta esaterako, gurekin zebilela pasa zen lehen mailara. Normalean, igande goizetan Kontxan arbitratu eta arratsaldean erregionaleko partidak batean marrazain lanak egiten genituen.

Gero Guruzetak Barça-Madril batean penalti bat eman eta eztabaida piztu zen. Arbitroa hilabete batzuetarako zigortzea erabaki zuten eta horren aurrean, Gipuzkoako arbitrook gure dimisioa aurkeztu genuen, bidegabekeria handia iruditzen zitzaigun erabaki hura. Ia denboraldi oso bat egon ginen arbitratu gabe protesta moduan.

Asko bidaiatu behar zenuen?

Bai, garai hartan Arabak ez zuen federaziorik, ezta arbitro eskolarik ere. Gipuzkoako arbitroak joaten ginen bertara.

Betidantik izan da arbitro defizita futbolean, futbol talde gehiago dira arbitroak baino. Asteburu batzuetan hiru partidu arbitratzen nituen, bakoitza herri batean. Aste gutzia lanean pasa eta asteburuak ere nahikoa mugituak izaten nituen. Adibidez, partida bat Irunen goizez, bestea Nutri-kun arratsaldean eta berandua-go Arrasaten, distantziak handiak ziren eta errepideak ez egungoak bezain onak.

Oroitzen al duzu arbitratu zenuen partidu politen bat?

Berezienetarikoa, Atotxan marrazain moduan Gipuzkoako eta Bizkaiko selekzioen



arteko partidu bat. Oso partidu polita izan zen, gerora oso jokalaria onak izandakoak zuden bi taldetan, adibidez Lopez Ufarte Gipuzkoakoan eta Salinas anaiak Bizkaikoan.

Arbitratzeko zein da mailarik zailena?

Beheko mailak zalantzarik gabe. Behin Jose Manuel Begiristain kideari burua ireki zioten makila batekin. Nik neuk Elgoibarren muturreko bat jaso nuen. Jubenil mailako partidu baten amaieran eman zidan jokalaria batek.

Ez zen beti gertatzen baina askotan egoera zailak sortzen ziren ikusle eta jokalarien artean. Oso oso zaila zen erregionaletan arbitratzea. Garai hartan jendetza joaten zen partiduetara; egun ez da partidu hauetan ikusle asko izaten.

Dena den, gaur egun ere nire bilobarekin ikusi ditut oso egoera zailak. Eskolarteko partidatan gurasoek arbitroaren kontra egiten dute bortizki! hori ezin da onartu. Euren semeak hoberekin izatea nahi dute edozeinen eta edozeren gainetik.

Jokalaria asko bidali al duzu zelaitik?

Bueno, beharrezkoa zenean, bai. Behin nire lana medio Bergarako supermerkatu bateko arduradunarekin hitz egitea egokitu eta berehala esan zidan Zumarragan zelaitik kanporatu nuela behin. Egun horretako prima galdu zuen.

Oroitzen al duzu politikak dituzu?

Oro har oroitzapenak onak dira denak. Santiagon Compostela taldeko zuzendaritzako kide batek partida amaitzean bere jatetxera gonbidatu gintuen, lehen mailako partida telebistan ikusiz mariskoa afaltzera. Ez gaizki pentsatu, bere taldeak egun horretan partida galdu egin zuen.

Gogoratzen dut, Michelinek egin zuen denboraldi on bat. Mikel Etxarri entrenatzaile zela oso jokalaria onak izan zituen. Bikain jokatu eta gol asko sartzen zuten. Michelin eta Errealaren arteko neurketa arbitratu nuen. Errealak liga irabazita zuen baina Michelinek serio jokatu zuen. Politia izan zen.

Zer eman dizu arbitrajeak?

Batez ere lagun asko. Gipuzko-

ako txoko guztietan daukat norbait ezaguna. Bidaietan ere lagun mordo egin dut eta azkenean horrekin geratzen zara, hori da aberasgarria. Jendeak uste duenaren kontra, arbitrajearekin ez zen dirua irabazten.

Azken finean Gipuzkoako edozein herritan ezagun gehiago dut nire jaioterrian baino eta harremana ona da. Jendeak azkenean, ulertzen ditu hanka sartzeak eta onartzen du oso zaila dela arbitro lana.

Zergatik utzi zenuen arbitrajea?

Ezkondutxo ondoren, emazteak esan zidan denbora behar nuela bera eta familiarekin egoteko. Arrazoiak zeukan, asko bidaiatu behar nuen asteburutan, Asturias, Galizia, Andaluzia, Madril, Aragoiko herrietara eta astean zehar egunean 14 ordu lan egiten nituen. Uztea zen erabaki zuzenena.

Nola ikusten duzu oraingo futbola? arbitroen lana?

Arbitroen lana inoiz baino zailagoa da telebista eta teknologia berriak direla eta. Edozein akats geratzen da agerian.

Realzalea zara?

Andaluziarra izanagatik Betis taldea beti jarraitu izan dut, baina bai, Reala asko gustatzen zait. Hala ere, ikusten ditudan partidetan beti arbitroaren alde jartzen naiz. •

Lagun asko eman dit arbitrajeak. Gipuzkoako edozein herritan ezagun gehiago ditut nire jaioterrian baino. Harremana ona da, jendeak ulertzen du zaila dela arbitro lana.

Atsobakarreko langileak eta CLECE konpondu dira Udalaren laguntzaz

Soldata eguneratu eta 2009-2011ko soldata atzerapenak itzuliko dizkiete

Lasarte-Oriako Udalak Atsobakar zahar egoitzeko langile eta CLECE enpresaren arteko negoziaketa eta akordioa ahalbideratu dituela jakin arazi du. Honen bitartez, 2012 urtean atzerapenak plusa eta soldatan iguera izango dute. Era beran, Udalak hilabete hauetan enpresa komiteak izan duen jarrera salatu du.

Atsobakar Zahar Egoitzaren inguruan egin zaizkion kritiken aurrean, Lasarte-Oriako Udalak egungo egoera argitu eta bertan hartu dituen erabakiak azaldu nahi izan ditu komunikabideetara bidali duten prentsa ohar baten bitartez.

Udalak oharrean gogora ekartzen duenez, Atsobakarko auzia 2008. urtetik datorren kontu bat da, "beraz Udala Gobernu berriak herentziaz jaso duena eta PSE-EEK bere garaian irtenbiderik eman ez ziona".

Langileen egoerari dagokionez, 2009. urtetik soldadak izoztuak izan dituztela aipatu izan dute. "CLECE eta langileak akordioetara iritsi ez direlako nahiz eta Gipuzkoako Lan-Hitzarmena, 2009-2012 urteetakoa, indarrean egon," jakinarazten du korporazioak.



2009tik ez dute soldata igoerarik kobratu Atsobakarreko langileek. Udalaren bitartekaritzari esker akordioa iritsi dira CLECEekin.

Gatzak konpondu

Lasarte-Oriako Udalak oharrean jakitera eman duenez, aurtan CLECE enpresari kontratua amaitzen zitzaion.

Oharrean adierazten denez, luzatzearen negoziatzearen hasiarekin batera, Korporazioak, urteetan pairatu den lan-gatzak konpontzeko ordua iritsi zela jakinarazi zion enpresari, honetarako, langileekin akordio batetara iritsi zedin exijituz.

Gauzak honela, akordioa batera iritsi direla aipatu du Udalak, "hiru urte luzez bizi izan duten egoera konpondu dute enpresa eta langileek, Udalaren laguntzaz".

Akordioa

Akordio honen bitartez, 2009-2011ko soldata atzerapenak itzuli eta 2012ko soldata eguneratu da.

Horren ondorioz, oharrean azaltzen denaren arabera, 2012 urtean langileek bere soldatan %14ko igoera izango dute eta gainera atzerapenen plusa izango dute.

Sindikatuaren jarrera

Hau guztia jakitera emateaz gain, enpresa komiteak (CCOO-UGT-ELA) Udalaren kudeaketa gaitzetsiz komunikabideetan azkenaldian izan duen jarrera ere salatu nahi izan du Udalak.

"Akordioa blokeatuta zuen

oporraldiak zirela medio eta langileen artean eginiko bozketaren batean hau desblokeatzea lortu da," azaltzen dute oharrean.

Udalaren ustez, honek garbi erakutsi du Komite honek ez dituela langileak ordezkatu eta Zerbitzuaren inguruko zalantzak piztu dituela inongo arrazoirik gabe, erabiltzaileengan alarma sortuz. "Jarrera erabat arbuigarria," adierazten du.

Beraz, Udalarentzat garrantzizkoak diren baldintzak bete dira: langileek lan-baldintza duinak izatea eta horrelako egoitzentzat Aldundiaren gutxiengo baldintzak bermatzea. •

BIYAK BAT

Irugurutzeta eta San Markosera txangoa

Lasarte-Oriako Biyak Bat erretiratuen elkarteak txangoa antolatuta du otsailaren 21ean, astearte.

Oraingoan, elkarteko kideek Irunen dagoen Irugurutzeta meategia eta inguruan dauden labe eta zuloak bisitatu dituzte. Inguru honetara meatze-treanean gerturatuko direla azaldu digute elkarteko kideek.

Bazkaria San Markoseko gotorlekuko jatetxean izango da. Ostean, Gotorlekuko museoa ikusi eta denbora baldin badago, Hondarribira hurbilduko direla aurreratu dute antolatzaileek.

Irteerako prezioa 34 euro-takoa da elkarteko bazkideentzat; bazkide ez direnek, berriz, 38 euro ordaindu behar dituzte. Txangoan izen emateko epea, otsailaren 8a, asteazkenean irekiko da. •

GIZARTEA

Familia giroa hobetzeko hitzaldia ostegunean

Gipuzkoako Guraso Bananduen elkarteak AGIPASE, Lasarte-Oriako Udala eta Emakumeen Zentro Zibikoaren elkarlanarekin, "Gizon-emakumeen arteko berdintasuna: erroka edo errealitatea" hitzaldia eskainiko du, otsailaren 9an osteguna, 18:00etan Villa Mirentxun.

Honetan, Sara Gonzalez Muro psikologoa arituko da hizlari familia, edozein egitura duela, instituzio osasungarria izan dadin. •

IKASTAROA

Arriskuko janariak manipulatzeko ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatzailerik ikastaro berria antolatu du. Honakoa ostalaritzako sektoreari zuzenduta dago eta Osasun Sailak eskatzen duen auto-kontrolaren inguruko edukiak landuko dira.

Ikastaroa otsailaren 13an izango da Anbulatorioko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan 16:00etik 20:00era. Pertsonako 45euro ordaindu beharko dira eta langabetuek 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko, OMIC 943361605 edo Elkolab, S.COOP. 943533303 telefonora deitu behar da. •

Bilduren lehenengo herri batzarra asteazkenean

Bildu alderdiak bere lehenengo herri batzarra egingo du asteazkenean, otsailaren 8an, Villa Mirentxun. Alderditik aditzera eman digutenez, Gobernuan jarri denetik, bere barne egitura osatzen jardun da udal txekoa lanak ahal bezain hoberen egin ahal izateko.

Alderdiak eskaini dituen datuen arabera, gaur egun 50 bat lagun inguru daude lan talde ezberdinetan banatuak udalak jorratzen dituen hainbat esparruri erantzunak ematen.

Egitura guztiaren aurkezpen publikoa egiteko, hurrengo asteazkenean arratsaldeko 19:00etan Villa Mirentxu erai-

kinean herri batzarra antolatuko alderdiak.

Herri Batzarra

Herri batzarraren gai ordena Batzarraren helburuen azalpena, zinegotzi bakoitzaren azalpena, antolaketa prozesuaren eta bere emaitzaren azalpena, lan talde bakoitzaren aurkezpena, web gune berriaren aurkezpena eta amaitzeko, udaleko kargu hartzearen bideo baten emaldia izango dira.

Bilduk bere aldetik gonbidapena luzatu nahi die herritar guztiei bertaratzeko eta antolaketa parte hartzeko, edonorentzat atek irekita daudela berretsiz. •



Bilduko aurpegia zinegotziak badira ere, alderdiak azpiegitura bat sortu du lan egiteko.



Brigidetako mojek ere jaso zuten santa eskean aritu ziren herritarren bisita.



Amalur trikitixa eskolako lagunek hotzari aurre egin behar izan zioten kalerik kale.



Erketz dantza taldekoak izan ziren lagun gehien biltzea lortu zutenak, guztira 40 bat lagun atera ziren.

Ohitura zaharrak Santa Ageda bezperan

■ Herritar asko atera ziren kalera oles egitera ■ Eguraldiak ez zuen batera lagundu, euria eta hotza izan ziren protagonista ■ Ohitura zaharrak berreskuratze bidean, mugarri da Santa Ageda

Oso ohikoa zen garai batean otsailaren 4a iristen zenero Euskal Herriko txoko guztietako baserrietan oles egitera ateratzea. Kantuak dioen bezala, Santa Ageda bezpera agunez, Euskal Herriko eguna ospatuz. Aurtengoan, Eguraldi txarrari aurre eginez, herritar ugari animatu dira santuari oles egitera eta bide batez, ohitura zaharrak maitatu eta gordetzeko asmoz. Ohiko makil doinuez gain, bertsolari, trikitilari eta panderojoleek ere girotu dituzte gure herriko kaleak.

Jon ALTUNA EGITEGI

Santa eskean herriko bost talde ezberdin atera ziren larunbat arratsaldean Lasarte-Oriako kaleetan barena.

Zabaleta auzoko 20 bat lagun baserri baserri aritu ziren kantuan, auzoko baserri gehienetatik igaroz.

Erketz dantza taldekoek 45 lagun biltzea lotu zuten eta adarraren laguntzaz, herriko txoko desberdinetan barrena ibili dira Santa Agedari ozen abestuz.

Jalgune elkarteko neska-mutilek ere izan zuten kantuan aritzeko aukera eta bestalde, Amalur trikitixa eskola ere Lasarte-Oriako erdialdean zen musikaren laguntzarkin, kantu tradizionalak abesten.

Azkenik, Ttakun Kultur Elkartek antolatuta, Xumela kantu taldea, Udal Musika Eskolako trikitilariak eta Lasarte-Oriako bertso eskolako kideak ere aritu ziren Santa Agedari oles egiten.

Eguraldi petrala

Hotzari aurre eginez, giro polita jarri dute kalera irtetea erabaki duten lagunek.

Eguraldi petralari umore onenarekin abestuz, herritarrek ezta ez sano dabiltzala frogatuta geratu zen atzokoan eta hauek kantuan jarraitu bitartean, ez dela ohitura zaharrik berehalakoan galduko ohartarazi zuten. •



Zabaletako auzokideak lehenik Goiegi eta Berasategira abiatu ziren eta ostera igotzean, goiko baserrietan abestu zuten.



Jalguneko neska-mutil eta begiraleak ere atera ziren kantuan, zaharren egoitzan kantatzeaz gain, kalean ere ibili ziren santa eskean.

Baserriko esneak badu bere lekua

■ Esne makina Leaburun kokatuta dagoen Mahala baserriak kudeatzen du orain dela bi urtetik
 ■ Pozik dira Lasarte-Orian esneak izandako harrerarekin ■ Hilero 1.700 litro inguru saltzen dira

Dorre plazako esne makinak bi urte bete berri ditu gure artean. Leaburuko Mahala baserriak hornitzen du eta beraz, bertako behien esnea ekartzen zaie kontsumitzaileriei. Hasieran esne gaingabetua ere eskaintzen zuten, baina erosleen artean nahasmena sortzen zuela ikusita, esne osoa bakarrik jartzen dute makinan. Hilero, urte sasoiaren gora beherak tarteko, 1.700 litro esne saltzen dituzte. Mahalan kontsumoa igoko dela espero dute, izan ere, makina honek badu berezitasun bat, sartzen den diruaren arabera esne kantitateak ematen duela, ez dela zertan litro bat erosi behar derrigorrez, alegia. 10 zentimoren truke baso bat esne ematen du.

MAIDER AZURMENDI

Bi urte egin ditu esne makinak Lasarte-Orian eta denbora tarte honetan kontsumitzaile kopurua handitzeaz gain egonkorta ere egin da, Mahalako arduradunek adierazi digutenez.

Izan ere, Mahalako Mikel San Sebastianen hitzetan hasieran nobedade efektua izaten da eta oso goitik hasten da kontsumoa. "Lau edo bost hilabete ondoren etortzen da kontsumo maila egonkorrena". Lehen hilabeteetan bereziki zaintzen da zerbitzu ona eskaintzea ere, hau da, makinak kale ez egitea, asteburu, zubi edota opporraldietan ere zerbitzua martxan egotea besteak beste. Funtsezkoa da esnea kontsumitzera ohitu diren herritarrek erosteko garaian arazorik ez edukitzea.

Dagoeneko asko dira eguneroko baserriko esnea hartzeko ohitura hartu duten herritarrak eta hori nabari da Mahala baserriak kudeatzen duen makinak dituen bisitetan.

1.700 litro hilean

Leaburuko Mahala baserriak hornitzen du Dorre plazan kokatuta dagoen makina 600 litro esnerekin; 300 litroko bi zisterna esne pasteurizatu fresko ekartzen dituzte makina betetzeko.

Esnea jaitsi eta berotu egiten da 72-78 gradu zentigrado bitartean 15-20 segundoz eta berehala 4 gradu azpiko tenperaturan freskatzen da. "Gure kasuan ahalik eta pasteurizazio suabeena egiten dugu. Hartara esneak ahalik eta propietate gutxien gal ditzan, izan ere, legeak ez du pasteurizatu gabeko esnea saltzen uzten".

Prozesu honen bitartez esnea kontsumitzeko prest da eta egun batzuetan egoera onean kontserbatuko dela ziurtatzen da. Herriko esne

makinan hilean gutxi gora bera 1.700-1.800 litro saltzen dira. Hala ere, Mahalakoek diotenez, "kontsumoan zerikusi handia du urte garaiak".

Esnea egosita dagoenez, makinatik zuzenean edan daiteke, hau da, umeek merientatzeko har dezakete baso bat esne, "egarria kentzeko guztiz aproposa da". Izan ere, herrian kokatuta dagoen makinak aukera ematen du 10 zentimoren truke baso bat esne hartzeko, ez da derrigor litro bat erosi behar, sartutako diruaren arabera ematen du esnea.

Nahi beste esne erostean gain, Mahalak gogoratu nahi du esnea erosteko botila edo ontzia etxetik ere eraman daitekeela, edozein botilak balio duela esnea hartzeko. "Batuetan jendeak uste du bertan saltzen diren botilatan soilik jaso daitekeela esnea baina ez da horrela".

Esne gaingabetua

Esne gaingabetua erosteko aukera ere jarri zuten martxan orain denbora bat jendeak hala eskatuta. Baina emaitza ez zen guztiz ona izan. "Jartzea erabaki zen baserriko esnearen zaporeari uko egin gabe, koipe gutxiago duen esnea nahiago dutenentzat baina jendea erabat nahasten zen". Informazioa makinan bertan jartzen zen: "zehazten genuen noiz jartzen zen esne gaingabetua eta noiz esne osoa, baina antza jendearentzat ez zen nahiko argia eta berdin nahasten zen. Azkenean zerbitzu hau emateari utzi genion".

Bestalde, saltzen ez den esnea jaso egiten dutela gogoratzen dute jabeek: "zekor, txahal eta txerrientzat erabiltzen dugu. Dena den, normalean salmenta kopurua ondo neuritzen dugu eta ez da esne asko baserrira bueltan etortzen".



Mahala baserriko behiak aske ibiltzen dira Leaburuko larreetan nahi beste belar jaten eta horrek eragina du esnearen kalitatean. MAHALA



Dorre plazan dago kokatuta esne makina. Bertan erosi daitezke beirazko edota plazitokozko ontzi berrerragilgarriak ere.

Harrera ona

Mahalako esnearen, zerbitzuak harrera ona izan zuen hasieratik. Dena den, egun jende askoren gustua produktu industrialetara ohitua dagoela diote Leaburuko baserrikoek, hauek askoz suabeagoak direlako, "tratamenduek produktu askori ohiko zaporea aldatzen die eta ondorioz, belaualdi gazteek ez dute esnearen berezko zaporea eta usaina ezagutzen".

Lasarte-Orian eskaintzen den zerbitzu hau beste herri askotan dago martxan eta honen arrakastaren oinarria kontsumo ohituraren aldaketa dela uste dute. "Jendea geroz eta arduratsua da batez ere jaten duenarekin eta asko baloratzen du produktu naturala, inolako tratamendurik jaso ez duen baserriko produktua".

Kontsumo arduratsua

Baserriko esnea zuzenean saltzearen, onurak zapora eta kalitateaz gain, asko dira. Batetik esne ekoizleentzat da ona ez baita bitartekorik behar, hauen eta kontsumitzaileen arteko harremana zuzenagoa da eta beraz, saldatuko litro esne bakoitzeko irabaziak gehiago dira nekazariarentzat. Gainera, hondakinen aldetik, honako esnea kristal edota plastikozko ontzi berrerrabilgarrietan jasotzen da eta etxeetan ez da hainbeste zabor sortzen.

Osasunari erreparatu, produktu hau larre zabalean aske hazi eta belarrez elikatutako behi osasuntsuen esnea denez, zenbait gaixotasun, besteak beste minbizia eta bihotzekoak, saihesten laguntzen duela baieztatuta dute hainbat ikerke-

tek. Hauen arabera, kolesterol ona igo eta hipertentsioa jaisten laguntzen du eta minbizia- ren aurrean, kaltzioak gorputza babesten duela diote adituek. "Gaur egun esne edo esneki gutxiegi hartzen dugu loditzen dutelakoan baina gure osasunerako oso onuragarriak dira."

Mahala baserriari baiko- rrak dira zerbitzuarekiko: "Guk ilusioz egiten dugu lan jendeak erantzuten duela ikusten dugulako, makina honi esker kontsumitzaileek merkatuan dagoen esnerik freskoena eta naturalena kontsumitzeko aukera dute". Garbi dute Mahalan baserriko esneak berak ere ez duela tratamendu beharrik, produktu hau freskoa kontsumitu behar delako eta jendea probatzera animatzen dute. •

Igerilariak ederki Federazioko sarian

Espainiako txapelketako 100 metroko proban izango da Ibarburu

Buruntzaldea IKT-ko gazteek urtarrilaren 28an, Gipuzkoako Federazioko 1go Sarian parte hartu zuten eta marken arabera, Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu txapelkunorde izan ziren. Taldeko igerilari guztiek markak hobetu zituzten eta Iñigo Ibarburuk 100 metro probako Espainiako txapelketako gutxieneko marka lortu zuen.

Paco Yoldi kiroldegiko igerilekuan antolatu zen lehengo urtarrilaren 28an, Gipuzkoako Federazioen saria. Bertan Buruntzaldea igeriketa taldeko infantil, junior, promesa eta absolutu mailako igerilariak izan ziren eta emaitza onak lortu zituzten gainera: bi txapelkunorde, Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu eta infantil mailako Espainiako txapelketarako beste marka gutxienekoa.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "igerileku luzean aurtengo denboraldian egiten den lehengo txapelketa da eta gozoz hartu zuten igerilariak."

100 metroetan ere

Iñigo Ibarburu gazteak Espainiako Infantilen Neguko txapelketako 100 metro libreeta-

ko gutxieneko marka lortu zuen eta honekin, jada bost probetan egongo da txapelketa horretan.

200 metroetako gutxieneko marka lortzen ere saiatu zen, baina segundu batera geratu zen. Hala ere, bere marka 2 segundutan hobetu zuen.

Marka pertsonalak

Era berean, Itsaso Tolosa eta Haitz Mitxelena ere gutxieneko markak lortzen saiatu ziren.

"Itsasok juniorretarako gutxienekoak badituen arren, absolutuen gutxienekoetatik gertu ibil zitekeela bagenekien eta horrek Espainiako Absolutuen Txapelketan eta "Open"ean aritzeko aukera



Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek lan ona egin zuten federazioko lehengo sariketan.

BURUNTZALDEAIKT

emango lioke," azaldu digu entrenatzaileak.

Tolosak 200 m. eta 50 m. bizkar probetan parte hartu zuen, bietan marka pertsonala egin zuen eta eskatutako markatik oso gertu geratu zen.

Haitz Mitxelena 200 m. tximeletan egin zuen saiakera, baina ez zen bere ahalegina nahikoa izan. 50 m. tximeletan proban, aldiz, bere marka hobetu zuen.

"Hala ere, Haitz arlo teknikoan ari da lanean egun

hauetan eta mugimendu berriak barnertzeak denbora eskatzen duenez normalizat hartu dezakegu," aipatu du Apeztegiak.

Baina, lehiaketa honetan marka pertsonal gehiago lortu zituzten Buruntzaldeko gazteek.

Jone Vazquezek 400 m. eta 200 m. libreeta bere markak hobetu zituen 400 m. proban. Kevin Iglesiasek 100 m. eta 200 m. libre probetan hobetu zituen bere markak, Garazi Alkortak

200 m. libreetan, Naiara Lizasok 50 m. libreetan eta Mikel Sotok 100 m. eta 200 m. bular probetan.

Bi txapelkunorde

Hau guztiaz gain, txapelketan egindako markaren arabera, Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa txapelkunorde izan ziren lehenengo sari honetan.

Sariak federazioko bigarren sariketan emango dizkietela jakinarazi digu taldeko entrenatzaileak. •



Saridunak, urdaiazpikoa eskuan dutela Bar Txema taberna irabazlearen aurrean.

Futbol Porrako bigarren buelta martxan

Ostadar SK taldeak antolatzen duen 2011-2012 denboraldiko 2. Futbol Porra martxan jarriko da hurrengo asteburuan.

Antolatzaileek jakinarazten dute, Porrako boletoak nahiz oinarriak dagoeneko ohiko tabernetan daudela. Boletoak otsailak 11ra arte bete daitezke, arratsaldeko 16:00ak arte.

Bigarren buelta hau maiatzaren 13an amaituko da eta orduan jakingo dira irabazleak.

Sariak

Izan ere, Porrako lehenengo eta bigarrenak 360 eurotako

eta 180 eurotako saria jasoko dute.

Hala ere, jardunaldi bakoitzean 60 eurotako saria jasoko du irabazleak eta hiru urdaiazpiko zozketatuko dira parte hartzaileen artean. Azken sailkatuak ere saria izango du, beste urdaiazpiko bat.

Urtean egin diren bi porren irabazleak berriz, 1000 eurotako saria jasoko du.

Ostadar kirol taldeak lasarteoriarrei Porra egiteko eta ekimenean parte hartzeko gonbidapena luzatzen die, hain juxtu, bide batez Ostadarrek antolatzen dituen kirol ekintzei ere laguntzeko.

Lehenengo buelta

Bestalde, ostiralean denboraldiko lehenengo porra sari banaketa izan zen Txema Taberna.

Lehenengo buelta honetan, Pablo Grifos eta Iñigo Zabala izan ziren lehenengo eta bigarren sailkatuak hurrenez hurren.

Urdaiazpikoen irabazleak, berriz, Alexander Rodriguez, Corta cabeza, Xuban Ollokiegi eta Urdaiazpikoman izan ziren.

Bestalde, Txema tabernako jabeentzat izan zen puntu gehien lortzen dituen tabernaren saria. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS153/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

RUDY artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **otsaila erdialdera arte.**

Osteguna, 9

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, OSTEGUN ZINEA atalean "HAPPY THANK YOUR MORE PLEASE". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 4,40 euro.**



Igandea, 12

Zinea

HAURREN ZINEA atalaren barruan, "VICKY BIKINGOA ETA THORREN MAILUA" filma ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera 3,40 euro.**



Itsaspeko zinema ikusgai

Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntza eta Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz, antolatutako URPEKO ZINE ZIKLOAREN lehenengo saioa:

- "Gasteropodoen mundua". Itsas-bare eta itsaskie buruzko filme liluragarria. Danny van Belle, 20 min.
- "Ekuador, eguzkiko ibaia". Amazoniako aniztasuna ikusgai. Sathosi Okabe, 52 min.

ASTELEHENA 6
19:00ETATIK AURRERA
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Astelehena, 13

- "Bizitzaren leihoak". Itsaspeko animalien ikuspegi aurkezten du. Danny van Belle, 18 min.
- "Mundu amaierako itsasoa". Galiziako ekosistemei eta olatgarroen estalketari buruzko filma. Jose Irisarri, 50 min.

Astelehena, 20

- "Maldivas". Irla eta ur-azpiko paradisia ikusgai. Sebastian Hernandis eta Jose M. Herrero, 27 min.
- "20'12". Yukatan penintsulako urpeko kobazuloak. Ricardo Castillo eta Bernar Gonzalez, 22 min.
- "Pelajiar esparrua". Zetazeoei buruzko filma. Rafa Herrero, 12 min.

Astelehena, 27

- "JATAY espedizioa". Marrazo zurien bila. Manuel Lazzano, 21min.
- "Lembeth, magikoa eta liluragarria". Itsaspeko biodibertsitate handiena ikusgai. Danny van Belle, 52 min.

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, HELDUENTZAKO ZINEA atalean "HAPPY THANK YOUR MORE PLEASE". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 5,50 euro.**

Osteguna, 16

Kontzertua

LASARTE-ORIAKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO ikasleek INAUTERIKO KONTZERTUA eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.**



Larunbata, 18

Kontzertua

INAUTERI OLINPIKOETAN ondo pasatzeko aukera, SALDA MR DUBBIN DJ-ak funk, salsa, afrikar musika... motak desberdinetako doinuak nahastuko ditu saioan. JALGI TABERNAN, **23:30ean.**

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz, Geltoki kalea 4.

Oharrak

Kotxeko giltzak galdu dira Urbarten

Lasarte-Oriako herritar batek kotxeko giltzak galdu zituen urtarriaren 31a asteartean, Urbarten.

Norbaitek aurkitu baldin baditu, 616 333 017 telefono zenbakira, Pili, deitu dezala.

Tituluak jasotzeko aukera institutuan

2009-2010 ikasturtean DBHko eta Batxilergoko ikasketak "Lasarte-Usurbil BHI" institutuan amaitu zituzten ikasleek dagoeneko euren tituluak eskuragarri dituzte ikastetxearen idazkaritzan. Beraz bertan jaso dezakete tituluak.

Marrazki eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Manuel Lekuona Kultur-Etxean dira asteazken

eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

1961ean jaiotako enafaria Txartelen

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean enafaria antolatu dute otsailak 11ean, 21:00etan.

Afariaren prezioa 30 eurotako da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korronte zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz).

Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Euskal Inauterietako konpartsa

Inauterietarako hilabete baino gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako iganderako, otsailaren 19rako guztia prest egon dadin.

Antolatzaileek parte hartu nahi duen herritar orori dei egiten diote. Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHIren egoitzan.

Udalari proposamenak luzatzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du.

Orrialdea Udaleko harrean dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere. Idatzi ostean, Udaletxeko harreran dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira. Lanak Lasarte Oriako kulturtxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.



Zabaleta auzoko elkarteak kanpaina xumea jarri du abian, hainbat tokitan aurki daitezkeen txakur kaken aurka. Horretarako kartelak jarri dituzte zakurrak libre uzten dituzten jabeek jokabide arduratsuagoa eskatuz.

Txakur kakarik ez du nahi Zabaletak

- Jokabide garbiago eta arduratsuagoa eskatzen die auzo honetako elkarteak zakurren jabeek
- Auzoan hainbat txartel jarri dituzte ■ Honelako azken kanpaina izango dela espero dute

Zabaleta Auzolan elkarteak txakur kaken aurkako kanpaina hasi du, auzoan zakurrak libre uzten dituztenei jokabide garbiagoa eta arduratsuagoa eskatuz. Auzotarrak nazkatuta daude hainbat tokitan ageri diren gorotz eta pixa arrastoekin. Esaterako aurreko larunbatean 20 minutuan auzoan ateratako argazkien bilduma bidali digute: ondoan ikusi daiteke asko jaso zituztela.

Jon ALTUNA IZA

Auzo garbiagoa" aldarrikatuz, kanpaina xume bat hasi dute Zabaleta auzokoek "txakur-jabeek modu garbiago eta arduratsua goan joka dezaten". Izan ere, auzokoek salatu dutenez, "nazka-nazka eginda daude bazter guztietan aurki daitezkeen txakur gorotzekin eta pixa arrastoekin. Haurren jolas parkean, espaloietan, belardietan, lorategietan, errepidean, atari aurrean... guztietan topa daitezke egunero". Kartel ezberdinak prestatu eta auzo guztian zehar jarri dituzte txakur-jabeek arreta,

gizabide eta heziketa handiagoa eskatuz. Txarteletan zakurrak zaintzeko, arreta izateko eta zakarrontziak erabiltzeko eskatzen zaie jabeek. Kanpainaren antolatzaileek aitortu dute jakin badakitela jabe gehienek arduraz jokatzen dutela, euren txakurren kakak jaso eta leku egokian utziz; baina txakurra auzoan zehar aske uzten dutenak eta ohitura desegokiak dituztenengana iritsi nahi dute. Aurretik ere egin dituzte Zabaletan horrelako ekimenak baina oraingo kanpaina eraginkorra eta azkena izatea espero dute, "besteren beharrik izan ez dadin". •



Kanpainaren bultzatzaileek aurreko larunbatean 20 minutuan osatu zuten goian ikusi daitezkeen txakur kaka bilduma.

Garmendia

ZERTAZ MOZORROTUKO ZARA?

OIHALAK

ETORRI GUGANA ETA AUKERATU OIHALA

txilabak eta mozorroak josten ditugu

Uistin Kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 Lasarte-Oria